Por último, en el pleno del pasado siete de octubre, el concejal Sr. Gaztelu cita que durante los anteriores mandatos del actual alcalde la normativa fue incumplida en varias ocasiones, poniendo como ejemplo la colocación de ventanas de PVC, mientras que en la pasada legislatura no se han dado casos de incumplimiento de normativa. Responde a ese comentario que no duda de que alguno se pudo pasar pero hay que tener en cuenta que en los dos anteriores mandatos hubo dos normativas diferentes y un periodo de transición entre ellas y anima al concejal Sr. Gaztelu a que tome las diferentes imágenes aéreas del SITNA de 2015 a 2019, periodo en el que gobernaron el ayuntamiento, y las coteje junto con el Plan General Municipal y el Plan Especial de Protección y podrá observar las abundantes infracciones urbanísticas cometidas en ese tiempo, o simplemente que se pasee a corta distancia de su casa o de la casa consistorial comprobando las irregularidades cometidas en la anterior legislatura.

La Corporación se da por enterada.

## **15.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

Toma la palabra el concejal Sr. Juandeaburre, que respecto a los trabajos de desbroce en Ipetea solicita que se lleven a cabo antes de primavera. Se informa que no se han ejecutado hasta ahora por las inclemencias meteorológicas.

Se informa que la empresa Adamo, ya ha llegado a Burguete y ha empezado a llegar publicidad a las casas.

En cuanto a la Mancomunidad de Auñamendi, informa que se ha constituido la nueva Asamblea, habiendo sido elegida como Presidenta la Sra. Nekane Nuño y como Vicepresidente el mismo. Entre otros temas que se han tocado, se tiene la idea de contratar un/a técnico de igualdad ya que parece que hay subvenciones para este tipo de contrataciones. A su vez, se ha creado una comisión de igualdad, formada por Joseba Martínez, Leire Remiro, e Izaskun Zabalza.

Toma la palabra la concejala Sra. Oyarbide que informa sobre la reunión mantenida en el Ayuntamiento del Valle de Erro el día 11 de noviembre sobre el Parque Micológico y la gestión que del mismo se está haciendo, en cuanto a los datos económicos se va cumpliendo con las expectativas del plan económico aprobado.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 20:30 h. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko Udaletxean, 2019ko abenduaren 16an, 19:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Bertaratuak: Juan Miguel Juandeaburre Ainciburu, Miren Oyarbide Lapazaran eta Ana Azanza Burusco, bilkura buru alkatea, Jose Irigaray Gil izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure. Gaztelu zinegotziak etortzerik ez duela jakinarazi du.

### **1.- 2019ko URRIAREN 10ean ETA 22an EGINDAKO BILKUREN AKTEN ONESPENA.**

Udalbatzak erabaki du aho batez 2019ko urriaren 10ean eta 22an egindako bilkuren aktak onartzea.

### **2- 2019ko URRIAREN 4tik ABENDUAREN 12a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA**

Alkateak informazio hau eman du: Alkateak jakinarazi du 0000ko abenduaren 00tik 0000eko otsailaren 00ra eman dituen ebazpenak, horiek bilkurako espedientean daude eta udalkide guztiak jakitun daude.

### **3.- ZALDUAKO AZTARNATEGIA IKO DEKLARATZEKO NAFARROAKO GOBERNUARI EGINDAKO ESKAERA**

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta jakinarazi du Zalduan aurkitutako aztarnategiaren garrantzia kontuan hartuta, kulturaren aldetik baita baliabide ekonomikoa den aldetik ere, aukera izan duen guztietan Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendari Nagusiari aipatu diola Interes Kulturalako Ondasun deklaratzeko beharra. Erabakiaren ados egonik, Kultura Departamentuak hasiera emanen dio espedienteari. Hala ere, proposatu du akordio bat hartzea Nafarroako Gobernuak eremu hori IKO izendatzeko ekimena babestuz, eta, aldi berean, Eslabako Santa Criz, Andion edo Arellanoko aztarnategiak adibide positibo gisa jartzea kultura- eta ekonomia-alderdietan, jende asko joaten baita bertara, bai aztarnategiak bai inguruak bisitatzerako. Aho batez erabaki da Kultura Departamentuaren ekimena babestea, eta Zalduako aztarnategia IKO deklaratzeko izapideak hasteko eskatu zaio.

### **4.- NAFARROAKO KUTXA FUNDAZIOAREN LAGUNTZA DEIALDIRA AURKEZTUTAKO UDAL LIXIBATEGIA BERRESKURATU ETA BALORIZATZEKO PROIEKTUA BERRESTEA**

Irigaray jaunak jakinarazi du Nafarroako Kutxa Fundazioari aurkeztu zaiola izaera kultural eta turistikoko UDAL LIXIBATEGIA BERRESKURATZEKO proiektua, proiektu kulturalen atalean, Fundazioaren 2020ko laguntzen deialdiaren bidez. Proiektu honek izaera berritzailea du, auzolanean gauzatu nahi delako aguazilaren zuzendaritzapean eta Madrilgo Fuensanta parrokiako 16 eta 21 urte bitarteko gazte talde baten laguntzarekin, aldi berean Aurizko gazteak parte hartzerako gonbidatuz, alde batetik ezaugarri sozial desberdineko gazteekin bizi daitezen, eta bestetik, higiezina,

zaharberritu ondoren, berea den zerbait bezala senti dezaten, herriko nortasuna islatzen duen neurrian.

Proiektuaren aurrekontua 25.000 euro ingurukoa da eta 20.000 euroko diru-laguntza eskatu da.

Proiektuarekin ados egonik, aho batez erabaki da onartzea eta 2020ko Diru-laguntza deialdiaren bidez Nafarroako Kutxa Fundazioari egindako eskaera berrestea

## **5.- 2020ko ZERGA TASAK**

Alkateak, Irigaray jk., 2020rako honako zerga tasak ezartzea proposatu du:

1.-Ehuneko 0,16ko karga-tasa jartzea hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko (landa eta hiri kontribuzioa)

2.-Ehuneko 3ko karga-tasa jartzea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) ordainarazteko . (gutxieneko tarifa: 30 euro)

3.-1,4 indizea jartzea jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ) ordainarazteko.

4.-Hirilurren balio igoeraren gaineko zergari dagokionez, 2/1995 Foru Legearen 175 artikuluan ezarritako gehieneko ehunekoak aplikatzea. Karga-tasa 8,5ekoa izatea.

5.- Etxeko egur-lote bakoitzeko 30 €-ko tasa jartzea.

6.- Gainontzeko zerga tasak KPIren igoeratik salbuestea.

Juandeaburre zinegotziak hartu du hitza, eta Gaztelu zinegotziak eskatuta, puntu honi buruz sortzen diren zalantzak irakurri ditu, zehazki, lurralde-, hiri- eta landa-kontribuziorako proposatutakoari buruz. Hori guztia 95/03/10 Foru Legearen arabera karga-tasa % 0,10 eta % 0,50 artekoa izan behar du, baina otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legeak 139.2 artikulua lehenengo zatia aldatzen du esanez karga-tasa % 0,25 eta % 0,50 artekoa izan behar duela. Horregatik planteatzen du gutxieneko tasa %0,25ekoa izatea eta ez %0,16koa.

Idazkariak hartu du hitza, eta adierazi du, bai aurreko korporazioarekin bai korporazio honekin, Tracasako teknikariak, Balorazio Ponentziaren dokumentua idatzi zuenak, gai hori azaldu zuela, eta Aurizko bizilagunek lurraldeko kontribuzioaren ordainagiriaren igoera gehiegi jasan ez zezaten, kasu honetan,% 0,16ko tasa aplikatzen jarraitu ahal izango zela, bazegoelako 139.2 artikulua aldatzea indarrean sartu ez zela adierazten zuen xedapen bat, eta, beraz, aipatutako tasa finka zitekeen. Xedapen hori zein den gogoratzen ez duenez aipatu du bilatzen duenean txosten txiki bat prestatuko duela gaia argitzeko eta guztiei bidaliko diela.

Eta gaineratzen du Nafarroako Gobernuak, Lurraldeko Aberastasun Zerbitzuak, Balorazio Ponentziaren dokumentua behin betiko onartu duena, udalak proposatutako motaren berariazko ezagutzarekin eta oniritziarekin egin zuela (% 0,16)

Horiek horrela, aho batez erabaki da honako karga-tasak onartzea 2020rako:

1.- Ehuneko 0,16ko karga-tasa jartzea lurreko kontribuzioa ordainarazteko (hiri-lurrekoa zein landa-lurrekoa)

2.-Ehuneko 3ko karga-tasa jartzea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ) ordainarazteko . (gutxieneko tarifa: 30 euro)

3.-1,4 indizea jartzea jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ) ordainarazteko.

4.-Hiri-lurren balio igoeraren gaineko zergari dagokionez, 2/1995 Foru Legearen 175. Artikuluan ezarritako gehieneko ehunekoak aplikatzea. Karga-tasa 8,5ekoa izatea.

5.- Etxeko egur-lote bakoitzeko 30 €-ko tasa jartzea.

6.- Gainerako udal zerga-ordainarazpenei KPIaren aplikazioa kentzea..

#### **7.- TOKIKO BESTEN EGUTEGI PROPOSAMENA**

Aho batez erabaki da 2020ko tokiko besten egutegia hau izatea:

Inauteria: Otsailak 22 eta 23.

Udaberriko edo Gurutze Santuko Feria: Maiatzaren 3a.

San Juan bestak: Ekainaren 23a, 24a, 25a, 26a eta 27a.

Eskulangintza Azoka: Abuztuak 15:

Larrazkeneko feria. Irailaren 20a

San Nikolas: Abenduaren 4a.

Patroi festak ospatzeko ezarri diren egunak alda daitezke, gazteekin adostuko denaren arabera.

#### **8.- JOSE ANDRES URTASUNEK LASTAPE ETXEKO ATZEKO ALDEAN DAGOEN BARATZA ERABILTZeko EGIN DUEN ESKAERA**

Joan den otsailaren 18an Jose Andres Urtasunek herri-baratzearen errentamendua eskatzeko egindako eskaera aztertu ondoren, Irigaray alkateak jakinarazi du eskabidearen xede den baratzea Maso etxeari zegokiola, eta, zehazki, Florencia Eseverri Burguete Hoteleko etxeari, hura hil baitzen, Yoller jaunarekin harremanetan jarri zen, eta hark jakinarazi dio ez duela interesik landaketan, hortaz, ez dago inolako arazorik aipatutako errentamendua emateko

Horrenbestez, Udalbatzak aho batez erabaki du Jose Andres Urtasuni esleitzea Florencia Eseverri andreari dagokion 6. poligonoko 33. lurzatian dagoen herri-baratzea.

Interesdunari jakinaraztea emakida izaera pertsonalekoa dela, bera baita Aprobetxamendu Komunalen Ordenantzako baldintzak betetzen dituen eta hura transferitzeko ezintasuna duena. Halaber, hura okupatu aurretik, hainbat urte baitaramatza landu gabe, udalak haren mugak ezarriko ditu.

#### **9.- UDAL ASEGURUEN ESLEIPENARI BURUZKO ONARPENA**

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta proposatu du Nafarroako beste aseguru-arterkaritza batzuei eskatzea aurrekontuak eta hobekuntzak, Udalak Gipuzkoako artekaritza baten bidez kontratatu eta existitzen diren aseguru-polizei dagokienez. Adibidez, bere logika izan dezake Goizuetako Udalari edo Berako Udalari, hurbiltasuna dela eta, Gipuzkoako artekaritza batek aseguruak eramatea, baina hori ezin da hemen ulertu, dauden artekaritza-kopurua kontuan hartuta.

Aho batez erabaki da egungo polizen azterketa bat egitea, kontratuak amaitzeko data zehaztea eta aurrekontuak eskatzea Nafarroako artekaritzei.

#### **10.- BUNKERREN IBILBIDEEN INTERPRETAZIO ZENTROA IREKITZEARI BURUZKO AKORDIOAK**

Irigaray jaunak hartu du hitza, eta Nafarroako Gobernuko Turismo Zerbitzutik jasotako deiaren eta posta elektronikoaren berri eman du, Bunkerren ibilbideko informazio-puntuaren erabilerari buruz egindako kexari buruz eta Udalak eta Turismo Zerbitzuak horri buruz sinatutako hitzarmena bete ez izanari buruz, 90.000 euroko dirulaguntzarekin arazoak izateko arriskuari buruz eta hartutako betebeharrari buruz.

Hitzarmen horren bidez, Udalak konpromisoa hartu zuen apirilaren 1ean lokalaren jarduketa- eta funtzionamendu-plan bat bidaltzeko, baina ez zuen hori egin. Nolanahi ere, adierazi zioten bazekitela inguruko turismo-enpresei eta bidaia eta bisita antolatuei sarbidea eman zitzaiela eta ez zela inolako arazorik egon.

Beraz, informazio-gunea irekitzearen kontu horri irtenbidea bilatu behar zaio, kontuan hartuta inguruko jendetza eta meteorologia. Juandeaburre zinegotzi jaunak hartu du hitza eta esan du erretiratuekin hitz egin litekeela, badirudielako gai honetan laguntzeko prest egongo lirakeela.

Udalak konpromisoa hartu du lokala irekita izateko baldintza meteorologikoak bisitari kopuruaren aldekoak diren egunetan, bai eta goizeko hamarretatik arratsaldeko zortziak arte seinalatutako egunetan ere.

Aldez aurretik udal bulegoetara deitzen duten txangoak eskatuta ere irekiko da lokala.

Erretiratuekin hitz egingo da, Udalarekin elkarlanean aritzeko prest dauden jakiteko eta gaiari irteera emateko aukerak aztertzeko.

## **11.- ADMINISTRARIENTZAKO C MAILAKO OSAGARRIARI BURUZKO LAN-AHOLKULARITZAREN TXOSTENA**

Idazkariak hartu du hitza. Udalak eskatuta Indarra Aholkularitzak egindako txostena iritsi da, Udaleko administrarien maila igotzeko aukerari buruzkoa, kontratatuta dauden udal bakoitzeko oposizio-lehiaketa mugatu bat deitu behar izan gabe. Ondoren, Erneta andreak eta Garralda andreak duten lan-egoeraren berri eman du.

Erneta eta Garralda langileak lan-kontratu finkoak dituzte, baina kontratatuta dauden udaletako bakoitzaren kontratu partzialak dituzte, ez baitira administrazio-zerbitzuen elkarte bateko kide, eta horrek kalte batzuk ekarri dizkie, besteak beste, lanaldiaren% 100eko kontratu bakarra izan balute legezkiekeen eskubideetako batzuk ezin izan dituztelako baliatu. Biak D mailan daude, egiten dituzten lan asko C mailakoak badira ere. Orain arte oposizio lehiaketa murriztuaren bidez bakarrik igo ahal zuten mailaz, hiru Udalek, Auritz, Erroibar eta Orreagak banan-banan deituta. Nafarroako Gobernuak, plantilla organikoari dagokionez, neurri hau hartu zuen: osagarri iragankor bat ezartzea administrari laguntzaileen D mailako lanpostuetarako, hiru urteko plan batean (2018-2020), non 2018rako% 7,91eko oinarritzko soldataren gaineko osagarria ezartzen zen, 2019rako oinarritzko soldataren% 14,91eko osagarria eta 2020rako C mailan integratzea. Hainbat kontsulta egin ondoren, jakinarazi digute neurri hori bera har dezaketela toki-erakundeek, baldin eta horretarako eskatzen diren aurrekontu-baldintzak betetzen badira, kasu honetan bezala. Aurizko langileen kasuan neurriak 2020ko urtarriletik hartuko luke indarra, 2022a arte.

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta esan du saiatu direla administrariak tokiko erakunde bakar baten mende egoten eta ez hiru toki-erakunderen mende. Horretarako, administrazio-zerbitzuen batasuna eratzen saiatu dira hainbat legegintzalditan, baina, arrazoi bat edo beste tarteko, ezin izan da gauzatu. Izan ere, Aurizko aurreko korporazioak, etorkizuneko Elkartearen estatutuak behin betiko onartuta egon arren, ez zuen aurrera jarraitu, nahiz eta Orreaga eta Erroibarko udalek behin eta berriz eskatu eta hori egiteko legezko aukera izan. Hala ere, baliteke aurrera ez egiteko arrazoietako bat tokiko maparen erreforma izatea. Nolanahi ere, legealdi berri batean gaude, eta hiru udaletako alkateak bilduta, Batasun horrekin aurrera jarraitzea da asmoa Idazkariak

hartu du hitza, eta adierazi du ondo dagoela saiataria, nahiz eta, une honetan, ekimen hori ezin izango den lortu, hasiera batean, otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legean desagertu egiten baitira administrazio-zerbitzuen batasunak. Alkateak erantzun du, hala ere, beraiek saiatu egingo direla.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

1.- Ana Isabel Erneta eta M<sup>a</sup> José Garralda langileen administrari laguntzaileen lanpostuetarako osagarri iragankor bat onartzea, 2020-2022 hiru urteko plan batean, honako hau ezartzen duena:

-2020 = oinarritzko soldataren % 7,91

-2021= oinarritzko soldataren % 14,91

-2022= C mailan sartzea

2.- Hartutako erabakia Indarra Lan Aholkularitzari helaraztea, nominak aplikatu eta erregulariza ditzan 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera.

## **12.- ESTATUAK GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO JARDUERETARAKO EGINDAKO EKARPENAREN XEDEARI BURUZKO AKORDIOA ETA 25 N ADIERAZPEN INSTITUZIONALA BERRESTEA**

Auñamendi Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta hura osatzen duten udalek iaz hartutako erabakiekin jarraituz, irizpide berari jarraitzea proposatzen da, eta Mankomunitateari transferitzea Berdintasunerako Estatu Idazkaritzatik jasotako diru-sarrerara, hain zuzen ere udalei genero-indarkeriaren arloan esleitutako estatu-ituna betetzera bideratutakoa, Mankomunitateak kudea ditzan laguntza horiek.

Aho batez erabaki da Auñamendi Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen (ES16 3008 0058 1418 0991 7824) kontura transferitzea Berdintasunerako Estatu Idazkaritzak udalerrri honi emandako 732,92 euroko zenbatekoa, genero-indarkeriari aurre egiteko proiektuak eraginkortasunez garatu ahal izateko.

Halaber, aho batez onartu da emakumeen aurkako indarkeriari buruzko kanpainari eta adierazpen honi atxikitzea:

### *AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA*

*Azaroaren 25 orotan, emakumeen kontrako indarkerien ondorioez gain, jatorriak, zergatiak eta betikotze-mekanismoak ere dakarzkigute gogora gaurko egunarekin batera egiten diren elkarretaratzeak, manifestazioak eta adierazpenak. Aurrera egin dugu emakumeek bizitza-esparru ezberdinetan jasaten dituzten indarkeria moten konplexutasuna identifikatzean, elkar hartuta egin dugu lan kontzeptualizazioan sakontzeko, indarkeria sexista ororen agerpen guztiak izendatu eta identifikatzeko, behin eta berriz esan dugu ikusgai jarri behar direla emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunak, munduko populazioaren erdiaren giza eskubideen urraketa etengabearen iturria baitira, eta kalera atera gara hori salatzerako.*

*Azken urteotan, agerikoa egin da bereziki mugimendu feministen mobilizazio-gaitasuna, milaka emakumek beren aldarriekin bat egitea lortu baitute. Emakumeen kontrako indarkeriak jarraitzen duela ikusita, protesta-deiadarrek mukuruko bete dituzte plazak eta ugari izan dira elkartasun-keinuak egoera horiek jasan dituzten emakumeekiko.*

*Bide luzea egin dugu, eta badugu oraindik zer ibilia. Ibilbide horretan gizon askok egin dute bat berdintasun-aldarrikapenekin. Horregatik, bada, bereziki gizonen alde egin nahi diegu Azaroaren 25 honetan, mobilizatzen segi dezaten, eta, batez ere, MUGI DAITEZEN.*

*MUGITU eta emakumeen kontrako indarkeria mota ezberdinen konplizeak izateari utz diezaiotela, MUGITU eta aurrera egin dezatela oinordetzan jasotako pribilegioei uko egiteko, MUGITU emakumeen eta gizonen arteko asimetria eta desparekotasuna birsortzen dituzten botereguneetatik, MUGITU benetako berdintasunaren aldeko borrokari zein jardunari egiten zaizkien gero eta eraso gehiagoren aurrean, MUGITU emakumeak etengabe berbiktimizatzen dituzten kuestionamendu matxisten aurrean, MUGITU genero estereotipoak birsortzen ez dituzten maskulinitate-ereduetara, MUGITU izututa dabilzan emakumeen bidegabekeria-egoera larriaren aurrean. Eta ez daitezela mobilizazioetan bakarrik aritu, ez ditzatela babestu bakarrik indarkeria jasaten duten emakumeak. MUGI DAITEZELA!*

*Azaroaren 25 honetan, gizon guztiei helarazten diegu gonbita, hitzetatik benetako konpromisoetara jauzi egin dezaten, keinuetatik aldaketa-mugimenduetara, batzuen pribilegioetatik denontzako, gizon zein emakume, eskubide osoetara. Gaur ez ezik, gaurtik aitzinean ere gizon guztiei dei egiten diegu, emakumeen kontrako indarkeria mota guztiak identifikatu eta errotik ezabatzeko eguneroko borrokan eta lanean parte har dezaten, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko esparru guztietan, pribatuan, etxean, kalean, lanean, esparru ekonomikoan, akademikoan eta politikoan. Honako hau ez da bakarrik elkarrekin gizarte bidezkoagoa eraikitzeke aukera bat, pertsona guztiak aukera-berdintasunean bizi daitezen dibertsitate eta askatasunetik, premiazko aldarria ere bada, ezein emakumek ez diezaion berriro aurre egin behar gizon baten indarkeria matxistari.*

*Horregatik, modu kolektiboan, toki-entitateek honako hau ADIERAZTEN DUGU:*

*GURE GAITZESPENA, emakumeek edozein esparru eta testuingurutan pairatzen dituzten askotariko diskriminazioek eragindako indarkeria sexista mota orori.*

*GURE KONPROMISOA, Administrazio Publikoak garen aldetik, modu aktiboan lanean jarraitzeko desparekotasunen aurka, zaurgarritasun-egoeren eta emakume zein neskatuen aurkako indarkeria-egoeren sorburu baitira, eta gure gonbita hala gobernuei eta erakunde publikoei nola nazioarteko entitateei eta gizarte zibilari, gogoeta egin eta konpromisoak har ditzaten.*

*GURE ELKARTASUNA, eraso edo hil dituzten emakumeei, indarkeria sexistari aurre egin behar dioten emakume eta neskatoei.*

*GIZON GUZTIAK PREMIATZEN DITUGU, adin orotakoak, konpromisoak eta jarrera aktiboak har ditzaten, emakumeen kontrako indarkeria mota guztien aurrean.*

*HERRITAR GUZTIAK GONBIDATU NAHI DITUGU jarrai dezaten emakumeen kontrako indarkeria gaitzesten eta hura deuseztatzeke konpromisoa adierazten, baita patriarkatuaren kontrol mota guztiak eta emakumeei askatasuna eta autonomia erabiltzea eragozten dieten muga eta baldintza guztiak salatzen ere, eta, hartara, azaroaren 25ean antolatzen diren jarduera guztietan parte har dezaten.*

### **13.- "KLIMAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA" ADIERAZPENA**

UPEFren “KLIMAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA” ADIERAZPENA aho batez onartzea, hona hemen:

*Azaroaren leian, ostirala, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren (CMNUCC) Aldeen Konferentziako Gobernu Mahaiak Txileko Gobernuaren proposamena onartu zuenetik, 2019ko Klimaren Goi Bilera (COP25) Madrilen egin zedin, Espainiako Gobernua lanean ari da nazioarteko hitzordu horren antolaketaren arrakasta ziurtatzeko, ordezkari guztien parte-hartzea ahalik eta gehien erraztea lehenetsiz baita gizartearen parte-hartzea ere.*

*COP25 2019ko abenduaren 2tik 13ra egingo da. Hitzaldia Txileko Presidentetzapean izango da eta Espainiako Gobernuaren babesarekin garatuko da*

*COP21etik -Parisko Akordioa sinatu zenetik- gaur arte, argi eta garbi adierazi da hiriek zeregin garrantzitsua dutela. Toki Administrazioa da herritarrengandik gertuen dagoena, eta haren ekintzak dira herritarrengan eragin hurbilena dutenak.*

*Munduko Tokiko Gobernuok egoera berri bati egin behar diogu aurre iraunkortasunaren arloan, eta horrek azkar erreakzionatzera behartzen gaitu, bereziki klima-aldaketak giza kokalekuetan, baina baita naturguneetan ere, izan ditzakeen ondorioak murrizteko.*

*Egoera berri horri aurre egiteko, tokiko gobernuak dagoeneko lanean ari gara Garapen Iraunkorreko Helburuak (GJH) lortzera bideratutako politikak eta neurriak garatzen, baina nazioarteko babesa eta komunikazioa ezinbesteko baldintza bihurtzen dira, orain inoiz baino gehiago.*

*Hirien artean akordioak egin behar dira, helburu komun bat lortzeko, indarrak batuta eta indar handiagoz jarduteko klima-aldaketaren ondorioak arintzeko eta horretara egokitzeko.*

*Beraz, hiriek protagonista izan behar dute klima-aldaketaren aurka borrokatzeko tokiko politiken definizioan, plangintzan eta betearazpenean, eta beharrezkoa da herritarren parte-hartzea izatea, erantzunkide izan behar baitute, bai eta sektore pribatuarena ere.*

*Tokiko gobernuen politikek eta klima-aldaketaren aurkako borrokara bideratutako jarduerak gero eta pisu handiagoa izan dute gure hirietan, herritarrak gero eta gehiago inplikatur eta kontzientziatur*

*Alkateok klima aldaketaren aurkako borrokan konprometituta jarraitzen dugu, eta Parisko Akordioa lortzen lagunduko duten politikak bultzatzen jarraituko dugu, eta, horretarako, hainbat arlotan lan egingo dugu:*

- Energia*
- Eraikuntza jasangarria*

- *Mugikortasun jasangarria*
- *Isurketak murriztea*
- *Ekonomia zirkularra*

*Tokiko gobernuak klima-aldaketaren aurkako borrokan buru izaten ari gara, eta ekintza erabakigarriak, berritzaileak eta asmo handikoak hartzen ari gara. Aurrerapen handia lortu da, baina beharrezkoa izango da murrizketa-konpromiso berriak lortzeko estrategiak, planak eta programak aplikatzen jarraitzea.*

*Laburbilduz, prest gaude klima-aldaketaren aurkako borrokan buru izaten jarraitzeko, baina finantzaketa handiagoa behar dugu prozesu horretan aurrera egiten jarraitzeko.*

*Horregatik, Espainiako Gobernuari eta autonomia-erkidegoetako gobernuari eskatzen diegu behar adina zenbateko ekonomiko transferi diezaietela tokiko gobernuari, udal-eremuan klima-aldaketaren aurka borrokatzeko berariazko programak sortzeko*

#### **14.- ASKOTARIKO INFORMAZIOA**

##### **Pirineos Abentura Parkea.**

Irigaray alkate jaunak jakinarazi du Alkatetzaren Ebazpen bidez Garraldako Zakarloa enpresari esleitu ziola erabat abandonatuta zeuden Pirinioetako abentura-parkeko instalazioak kentzea, arriskutsua zelako, gutxieneko segurtasun-baldintzak ez betetzeagatik. Diru-laguntza lerroren bati heltzeko aukerari begira egon zen, baina ez zen bat etortzen, eta, beraz, Udalak bere gain hartu beharko ditu gastu guztiak (10.000 €gehi BEZa). Jarduera arrunta ez zenez eta kostu-konparazioak zituenez, eskaintza kontsultatu zuen, alde batetik, basozaintzako kideekin eta, bestetik, lan bertikalak egin zituzten pertsonekin. Zuhaitzek estaltzen hasten ziren sirga guztiak ateratzen ari direla. Udalbatza jakinaren gainean dago.

##### **Udaletxeko etxebizitzak.**

Irigaray alkateak jakinarazi du, Medikua eta Agoazilen lehengo solairuak egokitzeko lanen barruan, sukalde eta komunei dagokien forjatua ordeztu egin behar izan dela, eta, beraz, eskailera noblearen sabaia, hasiera batean eraitsi egin behar zena, jatorrizko egoerara itzultzeko asmoz, eraikuntza-enpresaren lan gomendagarriari esker, osorik salbatu ahal izan dela. Horren ondorioz udal bulegoak aldi baterako lekuz aldatu behar izan direla gaineratu du. Obrak aprobetxatuz aurreko Herriko Etxea edo Zabaletaren jatorria den kartzela zaharreko hormetatik harria atera dela.

Udalbatza jakinaren gainean dago.

##### **Hiriko jarduketa-plan berezia, Guillermo Rubio Queirugak sustatua.**

Irigaray alkateak jakinarazi du Guillem Rubio Queiruga jaunak hiri-jarduketarako plan berezi baten prozesua hasi zuela, Etxexuri etxeko lursailean hirigintza-araudia aldatzeko. EA-2an (ongarritegia) baimendutako etxebizitza kopurua aldatzeko proposamena, bi izatetik lau izatera pasatuz eta eraikinaren altuera solairu bat igoz. Horretarako, udal honekin lankidetzan, herritarren partaidetza-prozesua hasi zuen, alde batetik, eta Ondare Atalari dagokion txostena eskatu zion, eta hori aurkakoa izan da.

Udalbatza jakinaren gainean dago.

##### **Josta-Leku frontoiko argia.**

Irigaray alkateak jakinarazi du ia urtebete erabili gabe zeramaten frontoiari argia emateko ekipoak berri direla. Bando bat pasatu dela gizalegeari eta errespetuari deika, eta, gainera, metalezko ate batekin babestuko direla.

Udalbatza jakinaren gainean dago.

#### **Kultur Etxeko teilatua.**

Irigaray alkateak jakinarazi du duela gutxi aguazilak Kultur Etxeko teilatuko 80 teila hautsiak ordezkatu dituela, eta iragarri du datorren urtean frontoiko, elizako eta aipatutako etxeko teilatuak erreparatzeko garabi bat ekartzeko aukera aztertu beharko dela.

Udalbatza jakinaren gainean dago.

#### **Karrikak elurrez garbitzeko lanen adjudikazioa.**

Irigaray alkateak jakinarazi du aurkeztutako eskaintza bakarra Carlos Leache Arreserena dela, neguan elurra garbitzeko, eta hari esleitu zaizkiola lanak, 50 €gehi BEZ orduko. Aguazilak, esleipendunak eta berak koordinatzen dute garbiketara.

Udalbatza jakinaren gainean dago.

#### **Era kontrolatuan erretzeko baimen eskaera.**

Irigaray alkateak jakinarazi du ezarritako epearen barruan baimena eskatu dela erreketara kontrolatuak egiteko Ataloztin, Peña del Soldadore eta Oriol Sole monolitoaren artean, Antufako irteeran, Arritxipin eta Atzelarrin, larratzeko eremua kontserbatzeko eta hobetzeko.

Udalbatza jakinaren gainean dago.

#### **Guardia Zibilaren kuarteleko hormaren pintura konpontzea.**

Irigaray alkateak jakinarazi du duela bi urte marrazkia margotu eta iragana zaharberritu zuen Kanula enpresarekin harremanetan jarri dela, nabarmen hondatzen ari delako, abiadura handian desegiten ari baita.

Udalbatza jakinaren gainean dago

#### **Karlomagno Bidea.**

Irigaray alkateak jakinarazi du Iruñeko alkate Maya jaunak bilera batera deitu zituela Karlomagnoarekin harremana duten udalerrietako alkateak; Tuterara, Lizarra, Luzaide, Orreaga, Erro eta Esteribarkoak bertaratu ziren; Juan Ramon Corpas jaunak proiektuaren berri eman zuen, eta hurrengo bileran erabakiko da proiektuari atxikitzea bidezkoa den.

Udalbatza jakinaren gainean dago.

#### **Garraldako egurra ateratzea eta Orreagarekin lortutako adostasuna.**

Irigaray alkateak jakinarazi du Garraldako komisionatuarekin bildu zela ataken ondoan bideetan izandako kalteak baloratzeko, eta ados daudela atakak konpontzeko eta Soroluzeako bidetik 3500 € ordainduko dituztela. Bestalde, jakinarazi du Orreagak konpromisoa hartu duela Joalegietatik Kuarentenara doan muga (abeltzaintzako azpiegituretan dagoena) ixteari dagokiona ordaintzeko.

Udalbatza jakinaren gainean dago.

#### **Lindus 2 Auditoria.**

Irigaray alkateak jakinarazi du Lindus 2 proiektuari auditoria bat egin zitzaiola eta horren emaitza ona izan zela.

Udalbatza jakinaren gainean dago.

#### **Apaizaren etxeko inmatrikulazioa.**

Irigaray alkateak jakinarazi duenez, 2010eko urriaren 28ko bilkuran jakinarazi zuen higiezin immatrikulatzeko aukera bikoitza zegoela. Alde batetik, Udalak 1869an jakinarazi zuen, ondasunen udal-inbentario batean oinarrituta, eta, bestetik, Iruñeko eta Tuterako elizbarrutiak 1981ean. Gaia Agoizko Jabetza Erregistroan ikertu ondoren, bere sarrera-erregistroaren arabera, 1869an ziurtagiriak aurkeztu ziren eta landa-ondasunak erregistratu ziren, baina ez egin. Ez parrokia-etxearekin, ez herriko etxearekin; beraz, ez dago bikoitz hori. Udalak 1960an berreraiki zuen etxea, eta, beraz, zilegi da udal-ondasuntzat hartzea, baina Artzapezpikutzak 1981ean erregistratu zuen, eta, beraz, legez, Artzapezpikuarena da.

Udalbatza jakinaren gainean dago.

#### **Pergolako estalkia konpontzea.**

Irigaray alkateak jakinarazi du La Caixa fundazioaren 1968 euroko diru-laguntza jaso dela hiri-espazio txikiak hobetzeko. Anai Martínez de Miguel kontratatutako langileari eta, bereziki, Jesús Pedroarena Etulain agozilari zorionak eman dizkiela, pergolako teilatua bezain konplexua den konponketa egiteagatik.

Udalbatza jakinaren gainean dago.

#### **Mendiaundin meategiak ustiatzeko emakida.**

Irigaray alkateak jakinarazi du 49E/2019 foru-aginduaren bidez baietsi egiten dela Francisco Calvete Munillak Silice Navarra SLren izenean Industriako zuzendari nagusiaren azaroaren 22ko 124/2018 Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsioa. Ebazpen horren bidez, Erro eta Auritz/Burguete udalerrietan "Blanca 35870" ikerketa-baimenaren ondoriozko meatze-ustiapenaren emakida ukatzen da.

Udalbatza jakinaren gainean dago.

#### **Jauregiaroztegiko bidea.**

Irigaray alkateak jakinarazi du 2018an diru-laguntza jaso dela bidea gauzatzeagat, eta aurreikusitako zenbatekoa 6.000 €inguru murriztu dela, esleipen-prezioak aurrekontuan jasotakoarekin alderatuta igo direlako.

Udalbatza jakinaren gainean dago.

#### **Eloko Teilerian eraildakoen omenaldira ez joatea.**

Irigaray alkateak jakinarazi duenez, 1936ko gerrako Eloko Teileriko hobian eraildakoen monumentua inauguratzeko ekitaldira gonbidatu zuten, ustez biktimetako bat herri honetakoa zelako. Gonbidapenari uko egin ziola, leku horretan ez zelako herriarekin zerikusia zuen inor hil, eta hala jakinarazi zuen. Gaineratu du 2018an udaletxeko atarian jarritako plakan Sergio Ilarraz Villanueva jauna eta José Antonio Arlegui Arraiza jauna daudela, biak Monrealen erail zituztenak, baina Agoizko eta Aurizko erregistro zibileko artxiboak, bi udaletako udal-artxiboak eta José María Jimeno Jurio jaunaren paperak ikertu ondoren, beti agertzen direla Agoizkoak bezala. Bere ondorengoekin harremanetan jarri zela eta ez dutela Auritzekin harremanik izan, eta, beraz, alkate bezala joateak akatsa gehiago areagotzen lagundu zuela ulertu zuela.

Udalbatza jakinaren gainean dago.

#### **Deskalkifikazioak egungo korporazioaren kudeaketari**

Irigaray alkateak esan du berak, Gabriel Rufianek bezala, uste duela "twitter taberna bateko barrako txistu-jaurtigailua bezalakoa" dela, baina onartezin ikusten dituela egungo korporaziora bide horretatik isuritako difamazioak, eta gezurtatu egin behar direla halako munta duten faltsukeriak, hala nola Potestad Tellechea alkate ohiak

azaroaren seian bere kontuan egindakoak: “*Aurizko Udalak Pirinio nafarraren memoria moto-biltegiari bihurtu du, Turismoarekin sinatutako hitzarmena ia 5 hilabetez bete gabe egon ondoren*”. Gezurra publikoa eta nabarmena da; izan ere, gertaera puntual bat izan zen, eta alde zuzenetik horren berri eman izan balitz, arrazoia jakinda idatziko zukeen. Karrika Narbaiz zinegotzi ohiak maiatzaren 29an bere kontu pertsonalean honako hau idatzi zuen: "Zer egiten dudan galdetzen dit nagoen adineko pertsonarekin? Twitteatu (beno, ikasi) taulatxoei buruz hitz egiten dugu, eta esaten dit Auritzera Basaburuatik etortzen zirela oholak egitera eta Udaleko justiziaren makila egin zutela (bide batez, aurreko legegintza desagertu zen)" eta erraz frogatu daitekeela horrelako gezurra esan baino lehen, Justiziaren edo alkatetzaren makilak elementu normalizatuak direla, eta, salbuespen txikiak izan ezik, guztiek diseinu bera dutela, eta, bestetik, herri honetako ospetsua, apal baten azpian botata agertu zela, eta ez dela makil diferentea. Gaineratu duenez, Pedro María Cenoz Iragui aurreko idazkariarekin gertatutakoa komentatu ondoren, adierazi zion hark erosi zuela hura, laurogeiko hamarkadan, Iruñeko Chapitela kaleko Elizburun, eta, beraz, ez zutela egin Basaburua bailarako artisauek.

Azkenik, urriaren zazpiko osoko bilkuran, Gaztelu zinegotziak esan zuen egungo alkatearen aurreko agintaldietan behin baino gehiagotan ez zela arautegia bete, adibidez PVCko leihoak jarritz, eta berriki bukatu den legegintzaldian ez dela horrelakorik gertatu. Iruizkin horri erantzun dio, zalantzarik gabe, baten bat igaro ahal izan zela, baina kontuan izan behar da aurreko bi agintaldietan bi araudi desberdin eta trantsizio-aldi bat egon zirela haien artean, eta Gaztelu zinegotzi jauna animatu du SITNAren aireko irudiak har ditzan 2015etik 2019ra bitartean, epe horretan udala gobernatu baitzuten, eta horiek Udal Plan Orokorrekin eta Babes Plan Bereziarekin erkatu eta behatu ahal izango ditu. Denbora horretan hirigintzako arau-hauste ugari egin izana, edo, besterik gabe, etxetik edo udaletxetik distantzia laburrera paseatzea, aurrekoan egindako irregulartasunak egiaztatzen.

Udalbatza jakitun da.

## **15.- ESKARIAK ETA GALDERAK**

Juandeaburre zinegotziak hitza hartu du eta Ipeteako sasi-garbiketari lanei dagokienez eskatu du udaberria baino lehen egitea. Jakinarazi da orain arte ez direla gauzatu eguraldi txarragatik.

Jakinarazi da Adamo enpresa Auritzen dagoela eta publizitatea igorri duela etxeetara.

Auñamendi Mankomunitateari dagokionez, jakinarazi du Batzar berria eratu dela, Nekane Nuño andrea aukeratu baita lehendakari eta bera lehendakariorde. Ukitu diren beste gai batzuen artean, berdintasun-teknikari bat kontratatzekeo ideia dago; izan ere, badirudi horrelako kontratazioetarako diru-laguntzak daudela. Aldi berean, berdintasun batzordea osatu da honako zinegotziarekin: Joseba Martinez, Leire Remiro eta Izaskun Zabaltza.

Oyarbide zinegotziak hartu du hitza, eta jakinarazi du azaroaren 11n Erroibarko Udalean parke mikologikoari buruz izandako bilera eta horren kudeaketa. Datu ekonomikoei dagokienez, onartutako plan ekonomikoaren aurreikuspenak betetzen ari da.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez, 20:30ean bilkurari bukaera eman zaio eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.